



KARRAMARROEN AURRESKUA

R. 3794
Altzagako Liburutegia / Erandio
Karramarroen aurrekua
Zubiaga, Félix
I-2 UME



1743092

KARRAMARROEN AURREKUA

FELIX ZUBIAGA

Eragilea: Fermin Iraolagoitia

Egilea: Felix Zubiaga

Marrazkilaria: Jesus Antonio Ruiz

Margoa: Ernio, S. L.

Deposito Legal: BI-1601-1983

Argitaratzailea: IKA, Euba. Tnoak: 673 04 86 - 673 18 50

Argitaletxea: Ibaizabal

L. E. V. S. A. - Carretera Bilbao a Galdácano, 20 - BILBAO - 4

KARRAMARROEN AURRESKUA

BIBLIOTECA
DE ERANDIO

Menditik itxasora doan bidean aurkitzen da Bidaurre herritxoa; joan eta ikustea baino ez dago. Bidaurretarrak ez dira gitxi arranditsuak be eta, behin herriko jaiak goren goitik ospatu behar zirala eta, inon diran sariak agindu ebezan, inguruko herriak dantza-lehiaketara deituaz.

Lukitako dantzari-taldeak saioginen dihardu ordutik, eta lehenengo saria irabaztekotan dagoz.


—Zelan mutilak? —agur dagitse dantza-maisuak buztan urdinzkeari eraginaz— «Azeri-dantza» aurkeztuko joagu ez ala?

—Zer esanik be ez! Azeri-dantza, geurea da-ta. —Eupa dagie azeri-dantzariak, buztan arroak gora jasoka.

Kataraindarrak, Lukitakoen eupadea entzunaz eta, beti be gitxiago ez izateko tirriaz, batzartu egin dira, eurak be, Dantza-Txo-koan.

—Ta zer deritxazue «Gau-pasa» dantzatzen badogu? —okutzen deutse dantzamaixuak, alazoko txokorrari pautadak eta oskadak dagitsozala—.


—Hori, hori, hamar kilometro inguruan ez dago hoberik eta —marrao eta guzti erantzun deutsie klubkideak—.



Hamar kilometro inguruan ez dago, egon be, beste auzirik, Bidaurreko dantza-lehiaketa baino, mihinei poza eta zeresana emoteko. Bidaurretarrak kartelak eta orri maizak banandu dabez Astarloan, Lukitan, Otsotegin eta Katarainen behinipehin. Dantza-klubetan as-trapalak entzun dira dantza-erregelak aztertzen eta zehazten: lau hankatara, hanka bitara hirutarakoez eta baterakoez horniduten aha-legintzen zirala, talde bakoitzak berarizko dantza-mota asma-ahale-ginetan.

—Guk zer aurkeztu behar dogu, aita? —dinotsie karramarro gazteak karramarro guraso aitari, haziak eta nahiko askatutxoak egon-arren be, aitari lotsa deutsie eta—. Bidaurretatik urrun be ez gagoz eta kartelak zabaldu dabez gainera. Ezin geinke aukerea galdu.

Karramarro aitak hagin artetik zigarro-kondo amataua atera, itxasora begitu, gero hondartzara eta azkenik Bidaurretaruntz burua iduliz, txua egin dau lurrera.



JESSE 83

—Zuek...e...horixe: «atzeskua». Atzeskua dantzatu daikezue, dantzatu zeinkie, —irriz eta errukiz begiratzen deutse guraso Karramarroak seme-alaba karramarroei—.

Daukanak daukanetik. «¡Naturalmente!» —gaineratu deutse, sendian oi daben hizkuntzan zigarro-kondoak daldal dagitsola ezpain artean—.

Karramarro gazteei ez jake bat be gustau guraso aitaren harako irritxoa eta harako «naturalmente» aspergarria, betiko leloa.

—Bidaurretarrak aurrerapidean doaz eta ez jake bat be gustauko gu geure «atzeskuaz» bagoakez —dirautso karramarro seme zaharrenak—. Barre egingo deuskue.

—«Atzeskua» ez dago modan! —koilarea sartu dau karramarro alaba gazteenak, eta gangartxoena—.

—Ez dagoala modan? Ja-ja-ja... Dantzau orduan «Aureskua!». —Karramarro aitak irriak ezeze, barre galantak egin dauz—. Ea aureskuaz zer irabazten dozuen.


—Aureskua! Aureskua! —erantzun dabe karramarro seme-alaba guztiak.

—Be! Hanka txikiegiak daukazuez. —Karramarro aitak harri-koskorra jaurti dau uretara—. Ezingo dozue burutik atera.

—Arreskua-Aureskua! Aurrerapen seinalea da eta! —etxeko oiturak iraul bearrez daroe auzia umeak—.

—Be! Bizirik jango zaitue Lukitakoak, Otsotegikoak eta Kata-raindarrak, halako arrandiz bazoaze.

—Karramarro aitak, eguzkia hartzen datzan lurretik jagi, eta gauzeari zutunik begiratzen deutso. Hareek diren saltari, hareek diren dantzati eta maltzurraz... Bua!



—Lehiaketa ez dago, aita, saltoan edo maltzurkerian —ohar egiten ausartzen da karramarro seme zaharrena—. Gauzea zentzunez hartu ezkerro, ondo aukeratzean, hobeto saiatzean edo jator aurkeztean dagoke...

—Agoteak baino baztertuago gaukiez itxasbazar honetantxe eta! —Karramarro aitak itxasora begiratzen dau ostera be.

—Geure patua dozu hori aita. Auzaz geure abiada aurrerapidean ezarriko bagendu aurrekuaz aldatu egingo genduke —begi argiak biztu deusoz karramarro alabak, gangarrenak barik besteak, aitari—. Iñork ez deusku debekatzen besteak beste Bidaurreko jaialdian parte hartzen...

—Eta kontu eizu, Bidaurren agintzen dan saria, geure bizibidea izan daitekela...

—Ja-jai—. Nigaitik plin! —gogait egin dau azkenik Karramarro aitak eta amor emoten dau. Ondo da, ondo da: non gaia, han dantzea eta Bidaurren aurrekua eta arazoa garbi. Argiago?



JESSE-83

Aita Karramarrori eritzietan aurrea hartzea ez da izan gatxena. Latzenak orduan hasi dira karramarroen sendian. Eritziak errez aldatzen dira, baina ohiturak...a...sendiko oreaz oratu jokerak...a...beti atzezka edo egalka ibili direnak...e...zelan ikasi aurrera ekiten? Saioak eta ariketak, ikasketak eta ikastaroak, soinketak eta ahaleginak: aurrera-pausoak. Ekinak, ezina, egina. Jo!

Egunaren azkenerako ketan dagoz karramarro gaisoen orkatilak eta zangoak. Eskerrak karramarro alaba gazteenari, aurretiz eskolatuta egon eta etxeko gaztedia dantzan irauldi dauala! Haren jasa eta igidurak! Haren lezino-ikaste eta erakustek!

—Ikusten dozue, zelan egin —alderdi bateko lau hankak era batera jasorik, egalkada bat dagi, dotore egin be—.

Karramarro seme bigarrena ariketa, ber-bera egiten dagoala, hankaz gora iduli da hondartzean. Minik ez dau hartu eta barreak egin dabez. Etxeko andereñoak —halan deitzen deusie dagoneko etxeko irakasle gazteari— kantalarren kontra eusgarria idoroz, ariketak egiten bialdu dau, arik eta dendua hartzen ikasi arte.

—Orain aurrera pausoak— dinotse txikerrenak besteei, ariketen seinalea emonaz. Hankak banan-banan.



JESSE-83

Amak etxeko zuzitzat euki eban alaba txikerrena eta Karramarro aitak be, zigarro-kondoari oska dagitsola, «ea honexek ateraten gaituan zaputsetik» dino hagin artean.

—Hankak banan-banan! Hankak banan-banan! —zarata egin beharra dago, egin beharra baino ez dago, trauskilenak hankak trabatzen dabezenean, atzekoak aurrekoak baino lehenago ostikatzen dabezenean edo eta aurrekoak atzekoak baino motelago aztintzen dabezenean.

Banan-banan, esan dot! Eta bat be ez tarraka! —agindu beharra baino ez dago, dantzalerroa hondartzeko aretzan neketsu mugitzen danean, eskolearen luzeaz.


—Bai, besteak lau hanka jaukiezan —erosta joten dau gangarrenak karramarroetan, ez gazteenak.

—Lau gehiago eukitea ez don eragozpen. Pisua horniduago botateko erea jaukanagu —erostak zehaztzen dauz behingoan etxeko zuziak—. Hankak banan-banan!

Karramarro aita, haseran irri eta barre egon bada be, orain isil eta benaz begira-begira dago dantza-jokoak daroan liluratan sentzua, «ako meneoa» kolkoa harrotzen jako. —Be! Niri bardin deust. Zergaitik beti atzezka —salto bat dagi.

—¡Formidablekiiii...! —zantzoa jaurti dau seme-alabak ikasi bari daben euskerea bardindu gureaz.


—Oi aita!... —mosuak emon deustiez Karramarro aitari arpegiko alderdi bietatik.



Anartean heldu ziran, heldu egin ziran, Bidaurreko jaiak eta dantza-lehiaketaren ordua. Txistulariak holtza gainean dagoz eta zuzendaria mikrofonotik deika:

«Arratsaldeon, Jaun-andreok, Bidaurrera etorri zarien guztioi, dantza-taldeoi batez ere. Dakizuenez hiru sari dagoz jokoan: 40.000, 20.000, 10.000 eta bi 5.000 pezetakoak. Merezien dabezanak eroan dagiezela. Hemen dakusgu jadanik, lehiaketara etorrita, Astarloako taldea, Otsotegikoak, Lukita eta Kataraingoak bederen. Ondo etorri danok —zuzentzailea makurtu egin da, holtzapetik norbaitek txukuputxu dagitso, hara zutundu da—. A... eta Karramarteiko taldea, jaun-andreok. Parkatu. Ez nebazan ikusten. (Irritxoak eta barretxoak inguruan). Bueno, beraz, etorri eta izena emon daben txandan dantzauko dabe. Lehenengo hemen Astarloako taldea!».

Txistulariak «Solorik-soloa» joten hasi dira, entzuleen artean ez dago formalidade handirik, arrantzaren bat be entzun da, baina as-tarloatarrak, gauzarik bereziena legez, egundoko apatx-hotsa atera dabe holtz gainean, beti be atzeskuak aureskuak baino urtenago eginaz. Ikusmeneko benetan astameak, belarriak painelo urdian bat-urik, ipertutika, dantza-abiada eta beste erregelak bat be galdu barik. Ondo txalotuak eta ozenkatuak izan dira. Jo diran arrantzak be euren aldekoak.



Mikrofonotik bigarren taldea agindu da. Txistulariak «Gau-pasa» joten hasi dira eta katuak katean datoz, erpak alkarri emonaz. Korrua egiten dabe holtza erdian, zutikoa ondo zaintzen dabe eskuez behea ostaz ikutzen dabelarik. Esku bata eta hanka bata gora, beste eskua eta beste hankea behera jokuan, xalo benetan. Korrukua amaitu eta kale-jireari emon deusie jarraian. Haserako abiada bardingoa unadaka larritzen doa, gero eta larritzenago, dantza-buruak marrao-txistukatuaz neurtzen dabela. Itzel, itzel gustatu da, jendeak keak aterra dauz txalokean.

«Hirugarren Lukitakoak «Azeri-dantza» ozenkatu dau mikrofonoak. Doinuz ezagun egiten da, baina dantzakereaz harrituta agertzen da jendea. Jo! Azeri buztan urdinkeak bereaz urten dauala, esan leike, bada «gurea narruan dago» esana daukatse. Eta ez dabe ba narru-hutsean urten! Han plazako begiraleen eskuketa, sinu eta ezlotsarizko eiagorak, txaloak eta txistuak.

Aurrera doa dantza-lehiaketa. Txakurzulokoak talde barria aurkeztu dabe. Bere zirradatxua egin dabe txiskilinka modalidadean. Otsotegikoak barriz hagin-karraskadaz sartu eta alaurika urten dabe holtza gainetik, dantzakizuna entzukizun jatorrenaz hornidu izan dabela.



«Azkenik Karramartei-taldea, jaun-andreok —hots egin dau mikrofonotik hizlariak—. Hara karramarro neba-arrebak!».

Begiraleen sama guztiak holtzaruntz luzatzen dira, begi guztiak betazuloetatik urtenear, jende xehe hori ikustearren, eta txistulariak «Aurrekua» jotzen hasi diranean, burlezarrez ete dabilzan begiratu deutse zuzendariak.

—Aurrekua? —harridurak begiraleen artean—. Eta zelan dantzatu gero!

—Ez dozak horreek e... hako Karramotxaren kumeak ba?

—Bai ta zera be! Egundo eure begiekin ikusi dok holakorik?

—Hori aurreku doblea, txo!


—Baina aurreku-aurrekua deitzea be...

—Zelan egitea gura dok, karramarro izan eta?

—Jo! Meritoa da gero!

Ikusminez asetu ez dirala be, ikuskizunaz zuhur eta lur dagoz Bidaurretarrak eta ingurukoak. Eztabaida dabil azpitik, eritziak eurt dagie ezpainetara orduko hagin artean, ezin amor emona be bai. Baina ezin esan gero harako puntapixo iraunkorrek, orain hanka bataz, gero besteaz, ta besteaz, lauko andanaz, bitzaren sitsa ez zanik.

—Ixi, orain agertuko da nor dan txapeldun —ezbaikor eta urduritxo dagoz bateren batzuk. Tukuz? Alderdi-minez? Artean dirua be ba dago eta, eta artean dagoz Astarloko jendea, Kataraingoak, Txakurzulokoak, Lukitakoak eta Otsotegikoak, arrantzak, marraoak, ausiak eta aulauriak dinoenez. Karramarteikoak isilik.



JESSE-83

«Sei, bost, zazpi, bost, sei» —zenbakiekin kartelak jaso dabez mahaiburukoak, danak ikusi daiezan. «Astarloako taldeak hogeta-zazpi punto!» —hots egin dau zuzendariak. Txaloak.

«Zortzi, zazpi, sei, zazpi, bost» —kartelak ostera be. «Hogeta-mairu punto Kataraingo taldeak!» —ozenkatu dau mikrofonoak. Eztabaida-zurrumurrutxoak. Batzuk zenbakien kontua galdu dabe, ez gero ardurea. «Hor nunbait lukitarrak-edo irabasle— dinoe—. Zenbat punto jaso dabez ba? Berrogei? Eta Otsotegikoak zenbat? Kataraingoak aurrenen?».

«Bederatzi, zortzi, hamar, hamar, bederatzi» —hara kartelak azken goradakan. «Berrogetasei punto, jaun-andreok. Berrogetasei punto Karramarteiko taldeak!» —zantzoka urkatu da mikrofonoduna—. Txalo, uju, txistu, txalo-pin-txalo, alaru, zotin, zaunka, txalo ta txalo, arrantza, mao, marrao, «entzun, entzun» mikrofonotik mahaiburua-
ren deiak:


«Jaun-andreok, mesedez! Erratu bat izan dalakoan edo zagoze zarataka? Bada ezetz esan behar deusuek! Zer gero, azken etorri jakuzala eta, hain barik bialduko genduzala uste zenduen, geure herriko aureskuaz —zelako aureskuaz gero!— halako ohore egin deuskuenok? Hara ba azkenak aurreren! Eta ez aureskua-arren gero, egundoko aureskua dantzau deuskuelako baino. Gora Bidaurreko dantza-lehiaketa!».

Txistulariak eten gabeko Porru-saldak joten hasi dira bertatik jendeari asazkaldia emotearren, eta osterako besteei, protestei, musika ipintearren. Orduan Karramarteiko taldeari egurrak, kontratuak, adiguneak, begiramenak eta zorionak.

—Zuzenbidea egin da eta kito —entzun da holtzatik hurren dagoan txosnako zurruten artean.

—Ez be! Gainerako taldeak eurena dantzatu juek, horrek ostera, eurena itzi eta geurea dantza jeuskuek.

—Hori, hori! Tokian tokiko.



KURRILOIEN KOMANDOA


BIBLIOTECA
DE ERANDIO

Kurriloiak teiltuan daukie eskolea eta telebista-adarrei ezelako entxuferik ipini gabe egoki daroe uriko zeruaren hertzaintza. Lanak egin ondoren, kurriloi talde bat —dozena bat inguru— hantxe egon doaz zorriketan edo eguraldiari begira ikastolara bideko kale hegalean.

Arratsaldeko seirak dira eta honez gero eskola-umeak etxeratu-ko ziran.

—Ezer ikusten da? —itauntzen dau kurriloi buruzagiak, burua ezkerretara okertuz.


—Bai, ogi zati bat ikusten dot espaloi ertzean —erantzuten dau kurriloi begiraleak teiltatik.



«Txotx» esan baino ez dau egin kurriloi buruzagiak eta kurriloi barrandaria han doa kalerantz buruz behera. Lurra ikutu orduko, hegoak zabaldu eta ogizatitik hamar metrotara kokatu da. Gero txin-txin-txin saltoka, ogizatiari konturaz hurrerako jako. «Bai, ogi zatia da, baina...» ohartzen dau kurriloi barrandariak. Bost metrotik begiratzen deutso. Behingoan hegaltxotik pasea egin eta beste aldetik hurreratzen jako txin-txin-txin metro bateraino. Kontuz! Metro erdi... Gose da kurriloi barrandaria, gozo dagoke ogizatia... Arra bat falta jako pikuaz ogizatiari zaust oskatzeko. Eta badoala eta ez doala, bat-batean farr hegada bihurrian aldendu da.

—Ze barri? —dinotso kurriloi buruzagiak teilatuan.

—Ogizatia da, izatez, baino kontuz ibilteko gauzea... —arnasoska dago kurriloi barrandaria—. Niretzako ondoegi ebagita dago ogi zati hori eta erdian odol halako arrastoa dauka...



«Txotx-txotx-txotx» esan dau orduan kurriloi buruzagiak eta hiru kurriloi pikotxlari dzanga buruz teilatutik behera jatxi dira. Hiru une berezitan lurra hartu eta bata, txin-txin-txin, metro bat, metro erdi hurreratu jako ogizatiari. Burua bihurtu, begi bat az lehenengo, besteaz gero begiratzen deutso, ikara jauzitxoa dagi, ea ogizatiak edo danadalakoak zelan erantzuten dauan. Barriro hurreratzen jako...

Berebil bat igaroan dator kaletik eta txoriak parrastadan hurreneko zugaitzera egin dira. Unetxoa igaro da. Kalea bakean dago. Bigarren kurriloi pikotxlariak, hegoak zabal, zugaitzetik jatxi eta au-sardiz ogizatia aztertzen dihardu, ia ikutzeraino. Bai, ez zera! Alde egin dau laster eta. Hirugarren pikotxlaria agertu da orduan, ez non-dik eta ez handik, bere pikuz ogiaren zindotasuna egiztatzen. Besteak baino lehenago etsi dau.


—Ze barri? —galdetu deutse kurriloi buruzagiak.

—Neure ustez, lakioa dauka ezkutauta —eritzi dau lehen kurriloi pikotxlariak.

—Niri lehergailuaren metxea begitandu jat barruan daukan zera... —eritzi dau bigarren pikotxlariak.

—Dana dala be, ahokada apainduegia, gauza onerako —gehitu dau hirugarren pikotxlariak—.

JESSE-83



—Zer deritxazue? —batzarrera deitu dau kurriloi buruzagiak.

—Gaur jazo doazenekin, kontuz hartzekoa da! —burua mogitzen dau ama kurriloiak—. Marrokeri askotxo dago gure kalean egon be eta...

—Tranpa asko esan gura dozu? Ez dakit ba... —begiak ñarrotu dauz kurriloi eskolatuak—. Zuek uste dozue, ume batek gurazetik edo jaurtiko ebalda ogi zati hori?

—Umeak jaurti daroezan ogizatiak erdikoa janik eta egalak murduzkatuta izten dabez, baina ogi zati hori oso-osorik dago —urten dau kurriloi barrandariak.

—Ba, nik ezin neike sinistu be egin, norbaitek apropos, baten bati kalte egiteko ipini dauanik —erpetxoaz saman azka dago kurriloi aitak zorriren bateren jararrian—. Umeren batek eskuetan hartu eta bertan garbitzeko be! JJo!

—Ume bat ez bada, kurriloi bat! —daragoio kurriloi amak.


—Zer dino gaurko izparringiak? —egoa jaso dau kurriloi buruzagiak.

—Goienkalen hiru kiloko goma-2, Barrenkalen kilo biko goma-3 —kurriloi eskolatuak betaurrekoak ipini dauz pikuaren puntan—. Hortik-hemetik kilo erdiko asko eta librankoak hainbeste...

—Jaungoikoak libra gaizala, ene semeok, —antzi dago ama kurriloiak, irakurleak andana aurrera daroala.

...—era nabarmenenetan bestelakotu, gozokien lokarriaz, goraintzien gutunaz edo bitxien kutxattilaz...

—Ikusten dozue? Gaur ezin leike fia!— tamal begiak goradi erakutsi dauz ama kurriloiak.



—Eta «bokadillo» antzeko erregalurik agertzen da, deskuido santuan? —arduraz hurreratu jako buruzagi irakurleari eta barrandariari eta kurriloi pikotxlariei begiratzen deutse—. Edo ez ete da libra erdira heltzen ogi zati hori?

—Hortxe-hortxe... Zati galanta da —dirautso kurriloi pikotxlarie-tan lehenenak—. Eta horrek gauzea gordinago egiten dau, danon bu-ruausterako!

—Ze kolore dauka goma-2 horrek? —kurriloi zientzilariak pikua okerka, ezkerrera begira, ideki dau—. Eiztariak kartutxoa takatzeko erabili daroen polborea halakoa ete da?

—Ez, gorria baino —zehaztu deutso bigarren kurriloi pikotxla-riak.

—Ze ardura deutso koloreak? —hego-lumak harrotzen dihardu kurriloi aitak.

—Kontuz koloreaz eta tankereaz! Badagoz luma zuri halako polbora zurizkak —pikua eta samea okertu dauz kurriloi zientzila-riak—. Kontu, ez eroan habiara uso-lumatxea diralakoan!

—Kotxe batek zapaldu edo desaktibauko baleu behintzat...

—Ogi zati faltsoa bada, zer lortuko genduke?...

—Jakitearren!


—Bueno, bueno: —hegoak gurutzatu dauz kurriloi buruzagiak, pazientziak pot egin deutzon—. Ez ete dogu berba larregi egiten batzar honetan? Goazen bertara eta erabagi daigun gauzea bero-be-roan.

—Bero-beroan dinok, txotxo? —asaldatu da ama kurriloia, kurriloi-aldrari atzetik darraitsola—. Habil kontuz, kurriloi!



JESSE-83

Teilatuaren zaindaritza kurriloi begiraleari itzi eta kurriloi-taldea kalera jatxi da. Hortik-hemetik ogi zatia inguratu dabe, ausartenak bost metrotara atanda hartzen dauala. Orduan kurriloi goseztoa, «jan behar haut» gogotan darabilala, hurreratzen jako, baina ikutu hainean dagoala, atzerantz dagi. Orain txandan beste bat doako. Bi batera edo? Pentsau ere ez! Banan-banan. Arriskua bakoitzak jasan behar dau dana, sendiaren alde urteteko. «Gozo dot ogia, hareago bizia» txorgortu dau besteak bere usnakadea egin dauanean, «ogi freskoa da» eritzi dau hurrengoak, «goma-2» susmo dau besteak, «polborra koipetsua urliak», «zital gorria» harakoak eta horrela andana: bakoitzak bere eritzia. Gosea galanta daukiena, baina tripa-zorriak ez deusiez este bihurtzen buruko garaunak.




Honetan «txirrist-txirriisst...» asaldua jo deutse begiraleak teila-
tutik eta, entzun orduko, firri-farra kurloiteria zugaitzetara, etxadiko
leihoetara eta zuhurrenak teilatuko larrainera ahienatu dira.

Zer izan da? Txakur bat dator espaloiko farolak ikuskatzen.
Han usain eta hemen ostiko, astiro-astiro dabil. «Horrek be orain eto-
rri behar joan» marmarikatzen dabe lumapetik kurriloiak, hobe erre-
galo faltso horrek bertan jo eta lehertuko baleu, beti geuri ikara sar-
tzen ibili barik», mokokatzen dau kurriloi gaiztoak.

Txakurra tapa-tapa ogi zatiaren usainera hurreratu da, hagine-
kin oratu eta ñau-mau batean barruko lukainka-serrak ohostu deu-
tsoz. Han itzi dau ogizatia ahoa zabalik.




«Txortxorruiiiit...» entzuteko astirik ere ez dabe hartu astrapaleari emoteko kurriloiak. Zaparrada baten jatxi dira, danak, begiralea izan ezik, ogizatiaren gainera. Ñaka eta erreberentzi gitxi oraingoan. Nahiko izan da txakurraren bedeinkazinoa. Izan ere, txokolatea jan eta ogia jaurti daroen umeen antzeko señoitoa urten dau txakurrak, txorien pozerako. Eta kurriloi buruzagiak, gurasoak, barrandariak, pikotxlariak edo beste zientziaren baten eskolatuak —danak esateko—, aitiarenik egin barik, janahalari emon deutsie, anaitasunik handiengan.



JESSE-83

Hareek pikukadak! Ha txandea batak besteari kendu beharra!
Bik batera alde banatik heltzea, ogizatia astintzea, bazkaria, azka-
ria, afaria. Ogiaren biguna!


Ogizatia ia erdia baino gehiago muskilduta dago. Aurreren hasi
direnak, zati galantak pikuan, aldentzen doaz. Ausaz teilatuan geldi-
tu dan kurriloi begiraleari zati bana daroatsie. Edo bidean jateko?
Edo begiraleari txandea damotsie. Kurriloi batzuk gora eta behera
hegadaka dabiz, goseak aseaz bardintzen. Ogiaren kondoa baino ez
da gelditzen kalean, apurrak. Kurra, kurra, azkenak dira eta. Kurriloi
begiralea izango da aurki ondakinekin dabilena.



Orduan txori-aldrea gozaro-gozaro teilatura igon, bakoitza bere teila gainean kokatu, eta koruko monxeen kantategia bailitz, arratsaldeko salmoak txorgortzen hasi dira:

«Txor-txori, txor-txori, eskerrak nori?
txor-txori, txor-txori, eskerrak zuri».

Jaungoikoari bihotza jasoaz, arratsalde haretan gaitzetik zaindu eta zoriona emon deuselako.



JESSE-83

UMEENTZAKO IPUIN-TXORTA

- 1.—MARI ANBOTON ETA GORBEAN, Juan Manuel Etxebarria
- 2.—BAKOITZARI BEREAN, Ramón Etxebarria
- 3.—TXOLINTXU ETA NEKANETXU, Bibiñe Pujana - L. C. Abeal
- 4.—KARRAMARROEN IBILALDIA, Felix Zubiaga
- 5.—FRAKOTE IKERLARI, Ana Arruza
- 6.—MARI ANBOTOKOREN IBILALDIAK, Josu Penades Bilbao
- 7.—KUKUAMETS, Juan txu Rekalde
- 8.—BASAJAUNAK, Juan Manuel Etxebarria
- 9.—AMAMAREN ABERETXOAK, Bibiñe Pujana
- 10.—LAMIÑAK, Juan Manuel Etxebarria
- 11.—KUKU PASOTA, Felix Zubiaga
- 12.—TXITXIBURRUNTZI ETA ARATOSTE, Bibiñe Pujana
- 13.—HALABEHARREZ MEDIKU, Felix Zubiaga
- 14.—IBANENTZAKO ARGI APUR BAT, Edurne Urkiola
- 15.—MAINTON ETA PRAISKU, Bibiñe Pujana
- 16.—ABEREA, Igone Magunagoitia
- 17.—ONDO IKASITAKOAREN AGERBIDEA, Ramon Etxebarria
- 18.—KISMI ETA OLENTZERO, Juan Manuel Etxebarria
- 19.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 20.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 21.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 22.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 23.—ARPEKO MARI, Eusebio Erkiaga
- 24.—SAN MARTINTXO, Juan Manuel Etxebarria

